

ez gara
alferrik
galduko

IRATI
ZUBIA

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IRATI ZUBIA

ez gara
alferrik
galduko

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Ezkaratzean egin zuten topo Elena eta Victoriak lehenbizikoz. Elkarrekin konbinatzen duten bloke multzo horietako batean bizi ziren. Laranja kolorekoetan, hiriaren mendebaldean. Itsasotik urrunen dagoen auzoa da Mendebaldekoa. Hirian inoiz izan den auzorik hezeena. Likatsua da bertako haizea, kresalik gabeko brisa bat. Ordurako, Elenak hiru aste pasatxo zeramatzan institutura joan gabe. Ez ziren piper zeharo planifikatuak izan, ez hasiera batean behintzat. Honek denak gehiago izan zuen kasualitatetik.

Flekilloa plantxatzeko denbora tarte justuarekin jaiki eta egunonik jaso gabe abiatu zen eskolara. Orpoak arrastaka, baina arin, maldan behera. Eskolatik gertu samar zela, zerua euritan lehertu eta markesina baten azpian bilatu zuen babes. Hantxe topatu zuen Ainhoa eta berriketan aritu ziren tarte batez, artean baraurik. Tarte luze samarra izan zen, institutoko sirena entzun zuten arte. Lehen ordura berandu heltzeko, Elenari iruditu zitzaion joateak ez zuela merezi. Total. Ainhoa bai, Ainhoa joan zen klasera, eta konprobatu zuen inork ez zuela Elenaren falta sumatu. Ez klasekideek, ez irakasleek, ezta, Santos, atezain begiluzeak ere. Jai hartu zuen biharamunean ere. Ez zen inor enteratu. Elenak probatu nahi izan zuen ea noiz arte aguantatu zezakeen ausente. Noiz arte izan zitekeen ikusezin. Astebetez luzatu zuen esperientua eta ezertxo ere ez. Bigarren astearen erdialdetik aurrera, apur bat triste, baina oraindik harro, erabaki zuen norbaitek bere falta nabaritu arte ez zela institututik berriro agertuko. Eta tira, ba gaur arte.

Jaiki, jaikitzen zen goizero. Laguntzen zuen Ainhoa eta gurasoen portalera egiten zuen buelta. Zer egiten du zereginik ez duenak? Gurasoen portalean itxaron. Hor esan dezakezu “ni naiz”, eta zabalduko dizute atea. Halaxe egoten zen Elena, bizkarra gotelé zuriari pegatuta, apatx eserita. Begiak behatxuloan iltzatu eta ukabilean biltzen zuen etxeko giltza, sudaderako poltsikoan. Tinbrea sakatu, ez sakatu, giltza sarrailean sartu, ez sartu, zalantzan. Horrela geratzen zen bera geldi eta egiten zuten orduak aurrera. Astebarruan erori den jai-eguna zen egunero: ezer ez egiteko, baina ospatzeko gauza haundirik ere ez.

Halaxe topatu zuen Victoriak, burua belaunen artean bilduta, goizeko enkarguetara abiatu zen batean. Kokotza tente ibiltzeko ohitura zuen andreak, baina nabaritu behar izan zuen neskatarik zerion zera hori; etxeko atea zabaldu orduko ezkerreko atera zuzendu zituen begi niniak, ia erreflexu automatiko bat izan zen. Ezaguna zitzaion neska, nahiz eta zin egingo zukeen ez zuela sekula gurutzatu. Bizilagunen txikia izan behar zuen horrek. Bai, agirrezabalatarren neskamotza, amaren egundoko antza zuen eta. Amaren begi beltz erraldoi eta begizulo berberak. Ama inoiz ezagutu zuenak berehala asma zezakeen alabari ere non eta nola irtengo zitzaizkion zimurrak.

Azkenekoz nerabe batekin tratua izan zuenean Victoria bera ere nerabeen zen. Horregatik, tentuz jokatu zuen. Poliki-poliki biratu zuen gerri lodia eta zabaldu zituen sudurtzuloak ahalik eta gehien, gaztetxo hari zerion izerdia irakurri ahal izateko. Orduan, apur bat kostata baina elegante, aurrerantz makurtu eta eskuin besoa luzatu

zion. Erreberentzia txiki bat. Poliki, errepide ertzean topatzen duzun txakurrarekin egin behar den moduan. Une batetik bestera neska bere eskumuturra usaintzera zutituko zela esperoko balu bezala. Zer dun, umea?

Begiak erdi-zabalik, esnatu berritan bezala, jaso zuen burua Elenak. Honek bai, honek aise errekonozitu zuen bizilaguna. Victoria, labanda usaina zerion eta beti zerbait morea janzten zuen atsoa. Gurasoek koitadu aurpegiaz begiratu ohi zuten berbera. Zin egingo zukeen beti txakur batekin ibiltzen zela. Egun hartan, ordea, ez zegoen txakurraren arrastorik, bakar-bakarrik zegoen emakumea. Bakarrik eta tente, bekainak apur bat goratuta, bere parean. Lurretik errespetu itzela ematen zuen haren itzalak. Are erraldoiagoa zen bere gerria. Behor batena. Zer dun, umea. Giltzak ahaztu ditun, ala?

Poltsikoko ukabila estutu eta baietz-baietz egin zion buruaz.

Enkarguta ninan. Nahi badun, etorri. Eta zutitu zen Elena, esaneko. Eta abiatu ziren, ilaran, bloke laranjatik maldan behera. Lehenengo supermerkatu, ondoren kioskora. Victoria, aurretik, Elena atzetik. Bide bazterreko txakurtxoak egingo lukeen moduan: pauso erdiko distantzian, baina pega-pega eginda. Victoriaren aldaka lodiek markatzen zuen erritmoa. Haren eskumuturrekoaren txin-txina, besterik ez zen aditzen.

Horrela, protokolo handirik gabe, jaio zen halako adiskidetasun bitxi bat. Parkean elkar ezagutu eta segundo baten buruan betirako lagun minak izango direla erabaki duten bi ume mokoren antzera. Udaberri betea zen eta barraskiloak txoratzen.

Izozkailuen korridorera heldu zirenerako ohartu zen Elena andrearen karroak ez zuela inongo zentzurik. Bizpahiru gauza erosteko asmoa omen zuen, baina karro hori goraino zegoen lepo. Ganbak, turroia, Campurriana kaxa haundi bat, paperezko ezpainzapiak, txakolina, mahatsak. Ospakizun berezi baterako modukoak ziren gauza gehienak. Victoriaren behor gorputzak ez zuen, oro har, azalpenak eskatzeko gonbiterik egiten. Baina, akaso, Elenaren begi handiek etengabe harrituta egotearen tankera ematen ziotelako, sentitu zuen zor ziola azalpenen bat edo beste. Ganbak, antza, plantxan eginak behar zuten; egosien aldean merkeagoak izanagatik, konparaziorik ez zutelako. Eta paperezko musuzapiak inportanteak ziren, hain zuzen ere, ganbak jatean telazkoak sobera ez zikintzeko. Turroiari dagokionez, krema, likore edo fruta konfitaturik izan ezean, ederto mantentzen omen zen izozkailuan. Bereziki, El Almendro, urte sasoi osoan saltzen den Alicanteko turroi gogorra. Eta mundu guztiak daki hori dela onena. Elenari handi geratzen zitzaion *mundu guztia*, baina konbentzitu zuen.

Victoriak desodorante merke eta onenaren arteko balantzea egin bitartean, makillajearen apalera zuzendu zen Elena. Begiko lapitz beltzen parean, inoiz baino gogorrago estutu zuen poltsikoan zuen giltza. Erraza zen jokaldia. Baina ez, hemen ez. Heldu behar zion kosta ala kosta tentazioari. Ezin zuen Victoriaren aurrean halakorik egin. Nahiz eta jo, supermerkatukoa den begiko lapitzen artean finena, denbora gehienez beltzari beltz eusten diona. Victoriak txistu txiki bat egin zion orduan. Pentsu bila bidali zuen, eskerrak. Txakurra existitzen zen, beraz. Bederatzi kilo t'erdiko zakua besapean bildu eta kutzazainera jo zuen, burumakur. Inork bere pentsamenduak aditu izanaren beldur. Victoriak konpra gehiena zintan zuen jada. Argi eta garbi, erosketa horrek ez zuen ez hanka ez bururik.

Supermerkatutik kioskorako bidea hartuko zuten, horixe zen plana behintzat. Distantzia prudente batera, ordea, Victoriak banku batean esertzeko eskatu zion Elenari, maistra baten tonuaz. Honek eskertu zuen atsedena, egundoko pisua zuen-eta txakurraren pentsuak. Serio jarri zen, baina, Victoria, esku bana aldaketan. Belztu zitzaion begitartea eta inoiz baino beldurgarriagoa iruditu zitzaion Elenari haren itzala. Inoiz baino behorragoa. Eta inoiz baino txakurkumeago egin zen bera. Kaka, honek bai. Honek harrapatu nau seguru. Orduan, ezker-eskuin behako bana eman eta titien artean sartu zituen eskuak Victoriak. Jaéneko olio botila txiki bat atera zuen kolkotik. Txikia, kristalezkoa, garestia, kutixi horietako bat. *No te creo*.

Horiexek izan ziren Elenak Victoriari zuzendu zizkion lehen hitzak. Eta lehen aldiz, egin zion irribarre. Victoriak bazekien nerabe baten irria ez dela egunero ikusten den zerbait. Galdetuko bagenio, Elenak ez luke asmatuko esaten, baina benetan horixe izan zen erabakia hartu zuen instantea. Bere bizitzarekin zer egin jakin arte, emakume hari segituko zion.

Hurrengo goizek norabide itxuraz arruntean segitu zuten Mendebaldean. Hementxe, betiko martxan, esaten zion jendeak elkarri igogailuetan topo egitean. Elena eta Ainhoak elkarrekin egiten zuten instituturako bidea oraindik ere. Erretzen zuten zigarro bana eta Ainhoaren aurpegian kontzentratzen zen Elena, betertzeko zimur, bekoki gaineko iletxo hori eta ezpainen bazterretako elutxetan. Lagunak amontzean, masailak erori, ilea lakartu eta azala herdoiltzean edukiko zuen tankera asmatu nahi zuen. Bitartean Ainhoak nobedadeen berri ematen zion. Hau eta hori liatu direla, beste hori kaleratu dutela, irakasle hori komunetan negarrez ikusi dutela. Ederki disimulatzen zuen Elenak hori dena bost axola zitzaiola. Eta mundu honetan ez denez hitz eta pitz aritzea Ainhoari adina gustatzen zaion inor, bada biak kotent. Ah, eta Elenaren faltaren inguruko seinalerik ez.

Zaila da esaten Elena alaiago zebilenik, baina arinago jaisten zuen etxetik behera zihoan aldapa. Eta, batez ere, arinago egiten zuen ondoren buelta. Erdi-saltoka, behinola umetan izan zuen ibilkera kaskarina berreskuratu balu bezala.

Sinplea zen atsoaren eskutik egiten zuen intinerarioa, ez zuen sorpresetarako tarte handirik ematen. Eta hala ere, Elenak zirraratik gertu dagoen zerbait sentitzen zuen hatz puntetan. Beti ibiltzen ziren ilaran, bata bestearen atzetik, baina lurrean uzten zuten itzalari begiratuz gero, eskutik helduta zebiltzala ematen zuen. Zebrabide eta semaforoetan Victoriak bere alboan jartzeko keinua egin eta zerbait kontatzen zion. Kukuak iragartzen zuela udaberria, adibidez. Edota behinhola izan zela kamarera, eta lan gogorra izanagatik, hori izan zela egin zuen gauza dibertigarrienetako bat. Medikuek batek esan ziola behin bere aldakek ez zutela gehiagorako emango, denbora gutxian ezingo zuela bere kabuz ibili, eta gezurra izan zela hori dena. Ez hadi sekula fiatu gizon baten hitzaz, umea. Ez eskatzeko barkamenik soberan, baina esateko beti egun on eta arratsalde on nonbaiten sartzean. Grazin erortzea inportantea den, umea. Oso inportantea den grazin erortzea.

Supermerkatutik kioskora joan ohi ziren, egunero egunkaria eta astean behin *Pronto* aldizkaria erostera. Oskar izeneko gizonkote bat zen kioskoko arduraduna. Latoizko azala zuen eta, zeraman bizi tristerako, barre exajeratuki ozena. Garai batean txiste berdeak eta egun arrazistak kontatzen dituen horietakoa. Miresgarria zen Victoriak zelako dotoreziaz maneiatzen zuen tipoa, hura konturatu ere egin gabe, berari sudur puntan jartzen zitzaiona egiteko. Aldizkariak oparitan ekarri ohi dituzten tontakeria guztiak ateratzen zizkion musutruk. Nezeserrak, txiskeroak, aldi berean lau kolore dituzten boligrafoak. Are, egun batean baita eguzkitarako krema txiki bat ere, bere pareo eta guzti.

Atsoak ordaintzen zituen bakarrak periodikoak eta aldizkariak ziren. Lehena, munduan zer berri zen jakiteko. Bigarrena, berriz, hilabeteko zozketako kupoiak biltzeko. Astero-astero, kupoi bat zekarren *Pronto* aldizkariak eta hilabetearen buruan denak bilduz

gero, milioi erdiko zozketan parte hartzeko aukera zenuen. Azkenekoa Cuencako txolin bati tokatu zitzaionan, azaldu zuen Victoriak. Oskarrek berak moztzen zituen kupoiak, mostradorean bertan. Txukun-txukun, haren esku lodientzat irrigarriki txikiak ziren plastikozko guraizeekin.

Hodeirik gabeko egunetan, apur bat luzatu nahi izaten zuen itzulia Victoriak. Komentatzen zuen: joango gaitun gaur Santa Mariara, edo denden abenidara. Eta Elena, poz-pozik, auzo heze hartatik apur bat ateratzeko desiatzen beti. Denden abenidara iristeko puska bat ibili behar izaten zen, kasik hiriaren erdialdean baitzegoen hori. Horrexegatik, gutxitan ibiltzen ziren handik, baina bertaratzen ziren aldiro festa hutsa izaten zen. Kate batek zeraman lurrin-denda erraldoi horietako bat hautatu eta topatzen zituzten perfume denak probatzen zituzten. Den-denak, aldi berean, fragantzia bakoitzak berez zein funtzio zuen zekitenaren plantak egiten. Eta irtetean, noski, lagin gisa debalde ematen zituzten produktuen sobre bana eskuan.

Santa Maria gertuago zuten. Hori zen erdigunearen eta Mendebaldeko auzoaren arteko muga markatzen zuen eliza. XV. mendean eraikitzen hasi eta XVII.ean amaitu zuten. Horrenbeste denbora tardatu zuten, ezen azkeneko hainbat estilo nahastu behar izan zituztela: fatxada barrokoa, barnekalde neoklasikoa; detaile roccokoak erliebean eta aurretik bertan zegoen ermita gotikoaren zantzuak bazterretan. Eta hori zen, Victoriaren arabera, onena. Zeinari bost axola zitzaion tartana edo floratua; belusa edo sedazko zapia. Edozein estanpatu konbinatzea zen bere look kuttunena. Azeituna batzuk atera eta pareko petrilean esertzen ziren, zorte pixka batekin, egun horretan ezkontzaren bat agertuko zen esperoan. Harrituta geratuko litzateke bat, jakingo balu aste barruan zenbat jende ezkontzen den hiri gentrifikatu batean.

Jendeak uste duenaren kontra, gailurretakoari bezainbesteko errespetua eduki behar zaio hiriko klimari. Hiriko euria gauza serioa da. Are, batzuetan ekaitz elektrikoak sortzeko arrisku itzela egoten da. “Bero-uharte urbano” deritzon fenomenoari zor zaio hori. Zementu zoruek beroa irentsi eta larreek baino denbora luzeagoan eusten diote temperatura altuei. Soberan pilatutako bero horrek gainera airea berotu kondentsazio gune gisa funtzionatzen du. Gainera, zenbait auzotan beroa ez ezik bertakoen nekea ere geratzen da itsatsita espaloian. Zoruak tentsioari gehiago eutsi ezin eta gainezka egiten duenean hausten dira ekaitz-hodeiak.

Hezetasunak itota bizi zen oro bat batean errebelatu balitz bezala egin zuen eztanda zeruak Mendebaldean. Supermerkatura joatekoa zen bikotea, baina ahapekako pare bat maldizio eta gero, Victoriak etxera buelta egitea erabaki zuen. Kasuen. Ez aurrera ez atzera geratu zen Elena: mutu. Victoriak hartu zion aurea, beste behin. Etortzen ba haiz, aperitiboa jarriko diñat.

Victoriak giltza sarrailan sartu orduko, belaunen parean zuen txakur haundi baten sudur bustia. Mastin lodikote bat zen, Reina, Disneyeko Dama eta Arlotearen omenez. Luzea zuen muturra eta begiak makarraz beteta. Ilajea zuria baino, krema kolorekoa. Urteen poderioz koloregabetua, garbigailuan marguldutako maindireekin gertatzen den gisan. Begien inguruko orbainek eyelinerra egin izanaren tankera ematen zioten. Halakoxea zen Reina. Pinpirina bera.

Etxe barruan kaleko pausoa moteltzen zuen Victoriak, Reinak bere erritmoari segi ziezaion. Herrenka mugitzen baitzen txakurra, burumakur, baimena eskatuko balu bezala. Adinekoa den, argitu zuen Victoriak. Hezetasunak kalte egiten zion hezurretan. Nori ez, pentsatu zuen Elenak. Poliki-poliki, sukaldera zuzendu zen hirukotea.

Reinaren janari-ontzia goraino bete ahala, plastikozko poltsa batzuk tolesteko agindu zion Victoriak Elenari. Triangelu txikiak osatu behar zituen, ondoren kaxoietan txukun kabituta ahal izateko. Zereginetan murgilduta, begi zeharka sukaldea eskaneatzeko aprobetxatu zuen.

Tresneria bakoitzetik pieza gehiegi zegoen hor. Burruntzaliak, katiluak, mahai-zapiak, eltzeak. Denak zeuden begi-bistan eta bakoitzetik behar baino askoz ere gehiago zituen

andreak. Launa edo seina, kasu batzuetan. Gehiegi, maizter bakarreko etxerako. Eta azulejo zuridun paretan, labanak. Zorrotz, disdiratsu, erraldoi. Zintzilik, Elenaren buru gainean. Atentzio berezia eman zion entzimeraren bazter batek. Toki propiorik ez zuten objektuak pilatzen ziren bertan. Aspaldi atea galdu zuten giltza-sortak, plastikozko gomak, pintza herdoilduak. Korreoa, ticket zaharrak. Promesa hautsiak, damuak, ahaztutako jendearen telefono zenbakiak. Korreoa seinalatu zion Victoriak, hartzeko mesedez eta eramateko egongelara. Berehala edukiko zuela aperitiboa prest, eta balkoia prestatuko zutela.

Balkoia? Zin egingo zukeen Elenak Mendebaldeko bloke bakar batek ere ez zuela halako luxurik. Ezinezkoa zen. Ez, Victoriaren etxea bere gurasoenaren berdina baitzen, nahiz eta alderantziz. Batean sukaldea sartu eta ezkerretara baldin bazegoen, bestean eskuinetara, eta horrela komunarekin, salarekin, logelekin. Alabaina, gainontzeko denean, arkitektura beretsua zuten etxe biek. Eta, beraz, balkoiaren arrastorik ez.

Reinak hankatxoaz eskatzen zizkion laztanei men egin ahala, egongelako apalategi txikian murgildu zuen Elenak gogoa. Aldare moduko bat zuen osatuta Victoriak bertan, orotariko objektu txikiekin. Portzelana eta plastikozko maskorrak, barruan elurra ari duen bola txiki bat, bizitza bakarra dela eta gozatzeko agintzen dizuten lamina moñoño horietako batzuk eta *souvenir* mordo bat. Horietakoren bat beraien hiri propiokoa. Gustatu zitzaion belen bitxi hori, objektu horiek, bertan, denak batera bertan pilatuta, bakardade sentsazioa arintzen zioten bati. Argazki mordoa zegoen, bakoitza zegokion urre koloreko markoarekin. Bakar batean ere ez zen ageri Victoria, baina bazen ia denetan errepikatzen zen beste emakume bat, haren adin beretsukoa, esango luke. Emakume haren bizi-lerroa irakurtzen saiatu zen.

Argazki zaharrenetan, andrea ageri zen gazte eta zuri-beltzeko. Elenak errekonozitu zuen bere hiriko itsasertza haren bizkarrean eta paseoaren baranda dotorea haren eskuetan. Argazkilariari keinu bihurri bat egiten zion ia beti, argazki gehiagorik ez ateratzeko esanez, baina txantxetan. Bazen besteak baino bereziagoa zirudien argazki bat. Inportanteagoa. Hasiera eta amaiera bat markatzen duen horietakoa. Koloretako argi txiki batzuk zituen markoak inguruan, gabonetakoak bezala, kable batetik zintzilik. Kanping bateko atarian ageri zen emakumea, besoak zabal-zabal, garaipen ikurra esku bietan. Tokia ezezaguna zitzaion, bere hiritik urrun behar zuen izan. Herrixka zuri bat,

lehorra, hegoaldekoa ia seguru. Horren ziren zuriak bertako etxeak ezen begirada bakar batekin gorputz osoko giharrak erlaxatu zitzaizkion. Argazki horretatik aurrera mutil kozkor bat ageri zen emakumearen altzoan. Argazkiz argazki umea gizondu egiten zen. Azkenerako, kopeta zabaldu eta burusoildu bazen ere, txikitako ergel aurpegi berbera mantentzen zuen.

Ganben lurrinak hartu zuen egongela eta horrek atera zuen Elena baimenik gabe sartu zen emakume haren bizitzatik. Victoriaren ipurdia azaldu zen sukaldeko atetik. Bizkarrez irten zen emakumea eta aldaka kolpe batez itxi zuen atea. Coca-Colaren metalezko erretilu bat zekarren. Ganbak plantxan eta xolomo mutur bat. Honek bai jakin nola bizi. Merienda salako mahai baxuan jarri eta argibideak ematen hasi zen, ezker eskuin. Besaulki eraisgarria paretaren kontra, ahalik eta gehien. Eta apalategia beste aldera. Kontuz, umea; kontuz, arren, argazkiekin. Jarritzan albo batera alfonbra eta gortinak, eta igo pertsianak goraino. Leihoak parez pare zabaldu zituenean, egongelako metro karratuak biderkatu zitzaizkion Elenari. Sukaldeko aulki eta taburete bana jarrita, eta Victoriaren mokaduekin, noski, malekoian pare egoten zen bertan. Igualako. Korreoa ordenatzera eseri ziren, kanpoan ekaitzak berea egin bitartean. Mahai baxuaren azpian zegoen Reina, begiak itxita eta belarri bat tente.

Victoriak ikuskatzen zuen korrespondentzia eta Elenari pasatzen zion gero, honek sobre bakoitza zegokion tontortxoan jartzeko. Fakturak eta propaganda ziren gehienak. Momentuan txukun pilatu bazituen ere, Elenak bazekien tokirik gabeko objektuen entzimeran amaituko zutela. Sobre zuri-gorri batekin topo egitean, segundo batzuez eduki zuen Victoriak eskuetan. Elenak ez zuen ongi ulertu zertara zetorren keinua. Gainerako sobreak bezalakoa iruditu zitzaion. Normalak baino apur bat handixeagoa, laukizuzenagoa beharbada, baina propaganda finean. Atsoak gisa horretako beste hiru jaso zituen eskuan eta bata bestearen atzean jarri, abaniko bat osatuz: zuri-urdina, zuri-berdea eta zuri-morea. Jaialai, Tokieder, Sagastimendi. Oporretarako landetxeen izenak zituzten denek, eta adineko pertsona zoriontsuak azalean. Elenaren ingeleseko workbookean agertzen zirenak bezain irribarretsuak. Zaharretxeetako propaganda zen. Segundo zalantzati batzuen buruan, barre burlati batekin eman zizkion Elenari. Horiek, jarri aparte. Esan nahiko balu bezala ezetz, ez zutela hara bidaliko sekula santan ere, baina ez botatzeko zaborretara. Esan nahiko balu bezala: badaezpada.

Eta nora joango zinateke. Galdera bat izan zen, baina baiespen forman bota zuen Elenak. Bera bezain beste harritu zuen atsoa haren atrebentziak. Reinak ere hartu zuen sustoa, eta egundoko kaskarrondoa mahaiaren kontra. Neskak galdera zuzen bat egiten zuen lehen aldia zen. Galdera zuzen eta pertsonal bat: nora joango zinateke. Oporretan eh, edo asteburu pasa bat, matizatu zuen Elenak. Argi utzi nahian bera ez zela inoren bizian sudurra sartzen ari. Beste edozein galdera hutsalen parekoa zela hori ere. Non erosi duzu fular hori. Zer eguraldi egingo du bihar. Nora joango zinateke. Oporretan.

Apalategi txikia seinalatu zuen erdiko hatzaz Victoriak. Teresarekin, Teresaren kanpingera. Lehen kuxkuxeatutako argazkietara bueltatu zen Elena. Aire batean, esaldi bakarrean, argitu zion atsoak bera tarte luzez asmatu nahian ibili zena. Izan zirela lagun-minak eta banatu zirela beren bideak. Asmatu zuela bakoitzak, bere modura, nola atera bizia aurrera. Teresa ama izan hunan.

Urdin zati txiki bat ireki zen zeruan. Kosta egiten du sinestea halakoetan urdin hori beti egon dela hor atzean. Kristalean euri-tanta apur batzuk geratu ziren itsatsita. Zintzilik, malgu, lo-kuluxka bat botatzen bezala. Auzokide ororentzat, hezetasunarentzat barne, atsedena hartzeko parada iragartzen zuten. Teresaren kanpingeko oporraldi batean zegoen Elenaren irudimena, igerileku distiratsuan eta tabernako helatuak iragartzen zituen kartoian. Jakin zazu zertan pentsatzen Victoria. Begiek egongelako pasillotik barrena egiten zioten alde neskari. Victoriarena behar lukeen logelara, itxita zuen atea. Elenak ate hori zeharkatzeko antsia sentitu zuen. Desira aguantaezina. Ordurako ez zegoen atzera bueltarik. Victoriaren inguruko den-dena jakin nahi zuen.

Heldu zen ekaina eta harekin loratu arrosak estolda bazterretan. Ordurako, Elenak ez zuen portalean itxaroten, zuzenean jotzen zuen andrearen tinbrea. Salto txikiak ematen, pixagurea balu bezala, eta poltsikoko giltzarekin jolasean erregulatzen zituen hatz-puntetatik irrist egiten zioten emozioak. Victoriak atea noiz zabalduko, egunak zer berri zekarren, irrikitan. Ez zuen ikusi nahi izan, baina berak ere nabaritu zuen hauskor zetorrela goiza.

Gaur ez gaitun joango superrera, gaur itsasertzera joango gaitun. Eta bera gurekin zetorren.

Motel-motel egin zuten Mendebaldetik hondartzako paseorako bide luzea. Elena eguzkitatik, Reina eta Victoria itzaletik. Beraiek ziren poliki mugitzen ziren paseante bakarrak. Kalearen erdia obretan zegoen eta beste erdia, berriz, uda-sasoiari hasiera emateko prestaketetan. Terrazetako plastikozko mahai eta aulkiak hara hona, toldo urdinen despiegea, aparkaleku marradunak lepo. Laster amaituko zen ikasturtea. Itsasertzera heltzean, txundituta geratu ziren hirurak, sinetsi ezinik nola izan zitezkeen paisaia eder hori eta beren auzoa hiri beraren parte.

Urteak dira auzokideek hondartza beharrean kaian bainatzeko ohitura dutela. Bertan biltzen dira, oro har, hiriko beste txokoetan horren ongietorriak ez direnak. Txakurrak, umeen karroak, atzera txiribueltak egiten dituzten gazteak, bainujantzian baino mauka luzean erosoago dauden neskak, hondarretan trakets moldatzen diren agureak. Kaian ez dago ez txiringito ez soroslerik, baina bai freskoari hobe eusten dioten arroak. Kaiko arranplan plastikozko aulki zuri bat topatu zuten, haize boladaren batek horraino ekarritakoa. Norbaitek propio beretzat jarri balu bezala hartu zuen eserlekua Victoriak. Elena eta Reina lurrean, biak andrearen oinetan. Atsoa une batetik bestera ipuin kontalari lanetan hasiko zitzaiela zirudien kanpotik. Barkuen gasolinak herdoildutako urak tonu berdexka ematen zion itsasoari. Kolore ezin ederragoa. Umea, hitz egin behar dinagu. Traizioz harrapatu zuten Elena galderek.

Noiz itzuliko haiz eskolara.

Hire lagunak, zer.

Eta gurasoak.

Zenbat urte ditun.

Zer gertatzen zain.

Zer egin nahi den.

Ur azpian balego bezala iristen zitzaizkion Elenari andrearen hitzak. Distortsionatuta. Eta etorri zen kolperik gogorrena.

Nik ez dinat ama izan nahi, umea.

Galdera horietako bakoitzak kiribildu egiten zuen Elenak horrenbeste taxuz plantxatutako flekilloa. Victoriak ikusten zuen nola ari zen neska, hitz erdirik esan gabe ere, bere senetik ateratzen. Flekilloari tira eta tira. Hezetasunaren aurka ezer egiterik ez dagoela adierazi nahi zion. Ez duela merezi. Hezetasunak beti egiten duela berea.

Bizi osoa daken aurretik, umea. Ez haiz alferrik galduko.

Kolpez zutitu zen Elena eta egin zuen alde. Hasieran poliki, duin, heldu plantak mantendu nahian. Victoria eta Reinaren siluetak begibistatik galdu zituenean hasi zen korrika. Hiri osoa zeharkatu zuen arnasestuka. Presaka, nonbait inor zain balu bezala. Ezker ukabilean giltza eta bata bestearen kontra ezpainak. Arnasa larri, baina zigarroak bata bestearen atzetik. Zigarro traketsak, txapuzeroak, esku dardarti batzuek bildutakoak. Trakeatik gora zetorkion negarra arrastoan mantendu, haserre bihurtu eta blokeatu. Hanka egin. Hori zen egin behar zuena. Zer ostiatan ari zen atsoa orain. Zertara zetorren hori. Tratu bat zuten egina. Zu zurera, ni nirera, baina elkarrekin. Zer inporta zuten eskolak, gurasoek, lagunek. Traizio bat zen hori.

Hori dena zuen Elenak barnean, bor-borka. Gurutzatu zuten hiritarrek lehen desamodioa bizi zuen neskatila bat, besterik ez zuten ikusi.

Tabernako kristalak garbitzen ari da Elena. Amaitzear da uda sasoi gogorra, berehala egingo dute hanka igerilekuko tunbonetan geratzen diren turista apurrek. Kolesterol altuko familia holandar bat eta bikote lerden aberats samar bat, inoiz ume bat erosiko dutenaren erabateko pinta dute. Hauek alde egiten dutenean hutsik geratuko da kanpinga. Satorrek eta mantangorriek aprobetxatuko dituzte bisitariak larre horian egindako zuloak. Freskatuko da giroa. Eta ondoren, zer? Tira, berak ere ez du zeharo argi. Akaso, luzatuko diote kontratua; edo bilatuko du beste zerbait. Moldatuko du zer edo zer. Sudurra leihora pegatu eta sakon hartu du arnasa, Ayamonteko haize lehorrak kristala gurutzatu ahal izango balu bezala.

Ez du ahaztu kaiko ihesaldia. Nola ahaztuko du bada. Gezurra dirudi kasik urtaro bat igaro dela ordutik. Mendebaldeko azkenearaino heldu zen egun hartan, bloke laranjak baino askoz ere gorago. Ezin izan zuen aurrera segitu, hiriak atzera egiten zion tira orpoetatik. Hiriaren mugan zegoen, handik aurrera errepidea, basoa eta mundua. Aspaldi hasi eta sekula amaitu ez zituzten eraikinak zeuden bertan. Udalak nahita amaitu gabe utzi zituela zirudien. Atzeman zitekeen oraindik haien egitura, non izan ziren behinola gela, terraza eta korridoreak. Ez zuten sabairik, baina bai zutabe, ate eta leiho bakan batzuk. Zabor eta obra-hondakina, lizuna, lotsa eta adreiluak, ez zen beste askorik. Eta orain Elena, begiak lehor, aho barrenean nahigabe hozkatuta zabaldu zuen zauritxoa miazkatzen. Bizi osoa. Bizi osoa aurretik. Nola esan daiteke hori. Bizi osoa gehiegikeria itzela iruditzen zitzaion berari. Begira, Victoria, 19 urte ditut nik. Bi aldiz errepikatu dut. Hori esan nahi izan zion. Denbora galdu, besterik ez zekiela egiten berak. Bizi osoa aurretik, *tu madre*.

Buru barneko zirimola arindu arte ez zitzaion baretu zitzaion arnasa. Lurretik zutitu eta egurrezko leiho batera zuzendu zen. Pixa usaina zerion eta ez zuen kristalik, nahiz eta dotore mantentzen zuen oraindik egurrezko markoa. Hiri osoa zuen eskura handik. Hiri grisa, hiri baldarra, hiri hezea. Hatzak luzatu eta teilatu soil bakoitza, edozein hiritar aspertu, azazkal puntekin hartu eta haizea bidaltzera bota zezakeela sentitu zuen. Ez zela ezer aldatuko, inor asaldatuko, une batetik bestera hatz lodiaz zanpatuko balitu ere. Leihoan parez pare, ukondoak bertan paratu eta esku ahurrak begiratu zituen. Bizitza-lerroak, noiz ezkonduko zaren edo poltsikoa beteta izango duzun iragartzen

duten horiek. Odoletan zuen ezker ahurra. Bazuen zerbait gozagarri, zerbait analgesiko, tanta horien hazkurak. Victoriak bota zizkion azken hitzak etorri zitzaizkion. Ez haiz alferriko galduko. Oraindik ere ez zuen argi zer arraio esan nahi zuen esamolde horrek. Baina, badaezpada, poltsikotik giltza atera eta egurra marratuz idatzi zuen leihoaren markoan.

Eguzkiak arratseko posizioa hartzen duenean, badirudi egun horretan gertatutakoa kolpetik ezabatuko dela hirian. Zeruak kobre kolorea eman ohi die fatxadei. Elenaren ile ilunari, tonu ezia. Maldan behera zetorren, ile guztia moño batean bilduta, flekilloa barne. Eguzki izpien marka zuen bekokian, eta ileko gomarena eskumuturrean. Begizuloak puztuta, amaren ibilkera berbera. Lasai zetorren ordea, bakean. Enigma korapilatsu bat asmatu edo zuzenean amore eman duenaren patxadaz.

Etxe behar lukeen kubo laranja parez pare. Portaleko atea zabaldu eta binaka igo zituen eskilarak. 4. Ezkerra. *Pronto* aldizkariko kupoi sorta lanpasean eta Andaluziara zuzendutako postal bat. Hutsik, baina helbidea fosforitoz azpimarratuta. Moñotik alde egin zion ile sorta txikia hatz puntekin hartu eta berehala itzuli zuen atzera bere tokira.

Sartu giltza zuloan eta bira txiki bat eskuinera, ez zaizu ahaztu nola egiten den hori. Etxera sartuko zen, tarte batez behintzat, bueltatuko ez zela esateko. Nora? Jakinzazu. Baina, ez zen alferrik galduko.

Kaixo, ama. Ni naiz.